

GAIXORIK BAINA POZIK

1

Gu gara Gernikako
gaixo eta zarrak,
gorputzez makal, baña
biotzez azkarrak.
Jaunak maite gaitu ta
emoten indarrak,
ez aztu gareala
gaurkoz Gernikarrak

3

Guretzat zein ona dan
erriko jentea!
Esker onez daukagu
biotza betea.
Kaltzadak beti dauka
zabalik atea;
Jauna, bedeinka eizu
Gernika matea!

5

Eskerrik asko, Jauna
Zuk maite gaituzu,
ba dakizu geuk ere
Zu maite zaitugu.
Zenbat maite gaituzun
agertu deuskuzu,
garean dana Zeuri
eskeintzen deusugu.

2

Gaixoak eta monjak
etxe batekoak
eurak doguz lagun ta
ama-ordezkoak.
Jesusek egin gaitu
senitartekoak,
ona datozen danak
dira etxeakoak.

4

Aurtengo Garizuman
ospatu doguna:
Jubileuko grazia,
au da poztasuna!
Aita Martzel praileak
izan dau jarduna,
bera agertu jaku
betiko laguna.

6

Agur anai-arrebok,
amaitu da emen,
zenbat poztu nozuen
Gernikarrok aurten!
Bisitauko zaituet
barriro lenbailen,
ondo bizi sekula
sekulorun Amen

A.Martzel